# gaurko filmak

| Filma | Balorazioa | Zuz. | Ordua |
|---|---|---|---|
| Los extremeños se tocan | ★ | Zuz.: Alfonso Paso. 74m Esp. 1969. | 11:00 La2 |
| Estacion comanche | ★★★ | Zuz.: Budd Boetticher. 69m. 1960. | 18:40 ETB2 |
| Un aller simple | ★ | Zuz.: Laurent Heynemann. 90m. 2001. | 21:00 C+(f) |
| Su propia verdad | ★ | Zuz.: Dan Lerner. 86m. | 21:45 ETB2 |
| Indiana Jones y el templo ... | ★★ | Zuz.: Steven Spielberg. 113m. AEB. 1984. | 22:00 T5 |
| La celda | ★★ | Zuz.: Tarsem Singh. 90m. AEB. 2000. | 22:00 C+(e) |
| A los que aman | ★ | Zuz.: Isabel Coixet. 92m. 1998. | 23:05 La2 |
| Diva | ★★★ | Zuz.: Jean-Jacques Beineix. 110m.1981. | 00:15 Arte |
| La primera noche de mi vida | ★★★ | Zuz.: Miguel Albaladejo. 81m. Esp. 1998. | 02:00 La2 |
| Fuerza excesiva | ★ | Zuz.: Jon Daniel Hess. 83m. AEB. 1992. | 02:15 TVE1 |
| Máscara | ★ | Zuz.: Linda Kandel. 95m. AEB. 1998. | 03:25 La2 |
| En brazos de la mujer madura | ★ | Zuz.: Manuel Lombardero. 105m. 1996. | 04:30 A3 |

| ● | ★ | ★★ | ★★★ | ★★★★ |
|---|---|---|---|---|
| Txarra | Eskasa | Balekoa | Ona | Bikaina |

Ane Muñoz


*Estacion comanche* filmeko irudia.

## Randolph Scott mitikoa emaztearen bila

**ESTACION COMANCHE** ★★★ **ETB2 - 18:40**

Zuz.: Budd Boetticher. Aktoreak: Randolph Scott, Nancy Gates, Skip Homeier. 69 min. 1960.

Bud Boetticherren filmografia zabal eta interesgarria osatzen duten abentura gehienak Mendebalde Urrunean kokatuak daude, eta, horien artean, kontuan hartzekoa da ostiral honetan gomendatu nahi dizuedan western polit eta oso entretenigarri hau. Zuzendariak Randolph Scott lankide eta laguna deitu zuen, berriro, rol nagusia eskaintzeko. Hain zuzen, zinta hau biek elkarrekin egindako azken westerna da. Scott jatorra indioek bahituta daukaten emaztearen bila dabil oraingoan. Gidoia Burt Kennedy ezagunak sinatu zuen.

**INDIANA JONES Y EL TEMPLO MALDITO**
★★ T5 - 22:00

Zuz.: Steven Spielberg. Akt.: Harrison Ford, Kate Capshaw. 113 min. AEB. 1984.

Indiana Jonesen bigarren abentura hau lehena baino kaskarxeagoa da. Huts samarra da edukiz, erritmo biziz eginiko akziozko eszena ugariek entretenigarria egiten badute ere. Are gehiago, ezustekorik ezak eta erraz aurreikusi daitezkeen egoerek bat baino gehiago aspertzea eragingo dute beharbada. Dena den, badakit Forden jarraitzaileen gustukoa izango dela, eta horiek, lehen filmean bezala, oso tarte atsegina igaroko dutela euren heroiaren gorabeherak jarraituz. Harrison Ford erakargarriak rol nagusia antzezten du berriz, hau da Indiana Jones abenturazale azkar eta ausarta.

**A LOS QUE AMAN**
★ La2 - 23:05

Zuz.: Isabel Coixet. Akt.: Julio Nuñez, Patxii Freytez. 92 min. 1998.

Isabel Coixet kataluniarrak *Cosas que nunca te dije* independentearekin ustekabean harrapatu gintuen, eta hurrengo film luze hau estreinatu zuenean jakinguraz hurbildu ginen zinemara, hain zuzen Estatu Batuetan egindako lantxo interesgarri horren antzeko zerbait topatuko genuelakoan. Bestalde, Galiziako paisaia berde zoragarrietan kokatua dagoen melodrama garesti hau ez da oso interesgarria, istorio zozo eta aspergarri samarra baitu abiapuntutzat. Aktore taldea ez da egokia, eta, tira, zer edo zer azpimarratzekorik badu, argazki landuez filmatutako irudi polit eta ikusgarriak dira.

**DIVA**
★★★ Arte - 00:15

Zuz.: Jacques Beineix. Akt.: Frederic Andrei. 110 min. 1981.

Jean-Jacques Beineix (*37º2 le matin,* 1985) frantziarraren polizia film umoretsu bitxi eta ausart honek ikus-entzuleak bi talde nabarmenetan banatu zituen, estreinatu bezain laster. Batzuentzat oso ikusgarria bazen, askok gorrotagarritzat jo zuten. Bi hamarkada igaro dira ordutik, eta, orain, bitxikeria gisa ikus daiteke. Richard Bohringer ezagunak parte hartzen du.

**LA PRIMERA NOCHE DE MI VIDA**
★★★ La2 - 02:00

Zuz.: Miguel Albaladejo. Akt.: Carlos Fuentes, Leonor Watling. 81 min. Esp. 1998.

Albaladejo arrakastatsuaren lehen film luzea, Leonor Watling modakoak Emilio Gutierrez Caberekin eta beste aktore ezagunekin batera protagonizatzen duen komedia txukun, fresko eta oso atsegina da. Gidoia zuzendari hasiberriak eta Elvira Lindok elkarrekin idatzi zuten; pertsonaia batzuk XX. mendeko azken Urte Zahar gaua nola ospatuko duten erakusten du.

**FUERZA EXCESIVA**
★ TVE1 - 02:10

Zuz.: Jon Daniel Hess. Akt.: Thomas Ian Griffith, James Earl Jones. 83 min. AEB. 1992.

Polizia film arrunt honen elementu nabarmenena James Earl Jones zaharraren luxuzko partaidetza da; protagonista izan gabe, nahikoa rol garrantzitsua jokatzen du. Terry polizia zakar eta basatia Di Marco gaizkile arriskutsuaren atzetik ibiliko da, laguna hiltzeagatik mendeku egin nahi baitio.

## ETB-1

07:10: Betimu.
07:30: Betizu. Twipsy.
08:50: E-klipse@.
09:45: Euskal espioitza.
10:40: Ederra eta piztia.
11:20: Gure familia eta beste piztia batzuk.
12:15: Hau komeria.
12:40: Bidaide. *Munduko ugaztunik txikiena.*
13:35: Betizu. Shin Chan.
14:00: Gaur Egun. Albistegia.
14:45: Gaur Egun Elkarrizketa.
15:15: Sorginen Laratza.
16:30: Mundu galdua.
17:15: Bidaide. *Pantanal: ur-lur.*
18:10: E-klipse@.
18:20: Betizu.
18:45: Betimu. Doraemon, katu kosmikoa. Shin Chan.
20:20: Iparraldearen orena.
20:28: Gaur egun.
21:05: Bertatik bertara.
21:45: Goenkale.
22:30: Pilota: Eskuz Binaka. Agirre - Apeztegia/ Baleztena - Zezeaga.
23:35: Pilota: 4 1/2an - Nafarroako Txapelketa. Lasa III - Goñi III.
00:35: Boxeo izarrak.
01:35: Hitzetik hortzera.
02:25: Gaur egun elkarrizketa.
02:55: Sautrela.
03:25: Teknopolis.
03:55: Bertatik bertara.
04:25: Esanak esan.
05:00: Elkartasunaren bideak.
05:30: Euskal Herritik.
05:55: Bi eta bat.
06:25: Amama sukaldari.
06:40: Ikusgela.

## TVE1

06:00: Canal 24 horas.
07:30: Telediario matinal. Los desayunos de TVE. Luis Mariñasek zuzendu eta aurkeztutako elkarrizketa saioa.
10:15: Nano. Telesaila.
10:55: Cuando seas mia. Telesaila.
11:45: Saber vivir. Magazina.
12:50: Asi son las cosas. Magazina.
14:00: Informativo territorial. Albistegia.
14:30: Corazon de primavera. Anne Igartiburuk aurkeztutakoa magazina.
15:00: Telediario 1. Albistegia.
16:00: Eguraldia.
16:05: La verdad de Laura. Telesaila.
17:00: El manantial. Telesaila.
18:00: La fuerza del deseo. Telesaila.
18:50: El rival mas debil. Lehiaketa.
20:00: Gente. Pepa Buenok eta Sonia Ferrerrek aurkeztutako magazina.
21:00: Telediario 2. Albistegia.
21:55: Eguraldia.
22:00: The Morancos Chou.
23:00: Esta es mi historia.
01:45: Telediario- 3. Albistegia.
02:15: Zinema.
**Fuerza excesiva**
Zuz.: Jon Daniel Hees.
Akt.: Thomas Ian Griffith, Charlotte Lewis. 1992.
04:00: Canal 24 horas.

## ETB-2

06:50: Del pais de los vascos.
07:25: Sustraia.
07:50: Bonanza.
09:30: El punto. Gonbidatuak: Damaso Casado.
10:00: Forum. Gonbidatua: Jose Angel Barrio Loza.
10:30: Clasicos en serie. La casa de la pradera.
12:15: El amor no es como lo pintan.
13:15: La cocina de Pedro Subijana.
13:30: Euskadi directo (EAEn).
13:30: Navarra directo. (Nafarroan).
14:00: Date el bote. Lehiaketa.
14:58: Teleberri. Albistegia.
15:45: Lo que faltaba.
18:40: Zinema.
**Estacion comanche**
Zuz.: Bud Boetticher.
Akt.: Randolph Scott, Nancy Gates. 1960.
20:00: Esta es mi gente.
20:58: Teleberri. Albistegia.
21:45: Zinema.
**Su propia verdad**
Zuz.: Dan Lerner.
Akt.: Kellie Martin, Antonio Sabato, Jr.
23:50: Abre los ojos.
00:40: Medias de seda.
02:30: Esta es mi gente.
03:25: Lo que faltaba.
05:45: Forum.

## A3

07:10: Oliver Twist.
07:30: Megatrix.
09:10: Diario del mundial en Antena 3.
09:30: El primer cafe.
10:30: De buena mañana. Magazina.
13:25: Informativos territoriales.
13:55: Los Simpson. Telesaila.
14:30: El mundial en juego en Antena 3.
15:00: Antena 3 Noticias 1. Albistegia.
15:25: Antena 3 con la seleccion.
16:00: Ecomoda. Telesaila.
17:05: Sabor a ti. Magazina.
18:55: El diario de Patricia. Magazina.
19:55: Pasapalabra. Lehiaketa.
21:00: Antena 3 Noticias 2. Albistegia.
21:30: El Mundial se juega en Antena 3.
22:00: Un rayo de sol.
00:45: Mundial 2002 en Antena 3.
02:00: Antena 3 Noticias.
02:30: Televenta.
04:30: Zinema.
**En brazos de la mujer madura**
Zuz.: Manuel Lombardero.
Akt.: Juan Diego Botto. 1996.
06:05: Se ha escrito un crimen. Telesaila.

# irratia

| FM | Irratia |
|---|---|
| 89.2 | Segura Irratia |
| 90.5 | Antxeta Irratia |
| 91.4 | Euskalerria Irratia |
| 91.8 | Irulegiko Irratia |
| 93.6 | Arrate Irratia |
| 94.4/95.2 | Euskadi Irratia |
| 95.5 | Xiberoko Boza |
| 96.0 | Bilbo Hiria |
| 97.00 | Tas-tas Irratia |
| 99.8 | Herri Irratia |
| 101.3 | France Bleu Pays Basque |
| 102.5 | Bizkaia Irratia |
| 103.5 | Euskadi Gaztea |
| 106.6 | Gure Irratia |
| 107.5 | Txolarre Irratia |
| 107.5 | Xorroxin Irratia |
| 107.7 | Hala Bedi |

OM: 1224 Herri Irratia

**EUSKADI IRRATIA.** Selektibitate azterketak ari dira egiten ehunka ikasle egun hauetan. Azterketa egiten ari diren lekura joango dira *Goizean behin* irratsaiokoak, ikasleen animoak nola dauden ikustera. 10:00etan, Joxerra Gartziaren gogoetak entzun ondoren, Begoña del Tesok eta Koldo Almandozek zinemaz hitz egingo dute. 11:00etan, sexu adikzioaren inguruan ariko da Jon Ander Bilbao.

**RADIO EUSKADI.** Francoren diktaduraren ondorengo lehenengo hauteskundeen 25. urteurrena izango dute hizpide gaur goizean *Boulevard* irratsaioan. Solasaldian UCDko diputatu ohi Juan Etxebarria Gangoiti, EAJko Andoni Monforte eta PSE-EEko Jose Maria Benegas izango dira. Ondoren, Margarita Uriak eta Magda Oranichek Emakume Abertzale Batzaren 80. urteurrenaz hitz egingo dute.

**MOLOTOFF IRRATIA.** Eguerdian Alberto Aldasoro EHNEko kideari eginiko elkarrizketaren pasarte interesgarrienak eskainiko dituzte. 12:30ean, Itoizko Koordinadorak urtegia betetzeko baimena dela-eta idatzitako agiriaren berri emango dute.